


BORTXAZKO LANAK: GEOGRAFIA EZEZAGUNA



Kontzentrazio eremuak eta Langile Batasunak izandako zenbait loki, 1938
Iturria: Archivo General Militar de Ávila, MG, C. 20772, tomo C., cara A., I. R. C. M., M. de Defensa



Langile Soldadua Disziplinari Batasunak izandako zenbait loki, 1942
Iturria: Archivo General Militar de Ávila, MG, C. 20772, tomo C., cara A., I. R. C. M., M. de Defensa

Gatibuen lanarekin martxan jarritako obra eta enpresa guztiak islatu beharko lituzkeen mapa osatzea bete gabeko erronka da oraindik historialariontzat. Hemen datu batzuk aurkezten dira, baina probintzia mailako ikerketak falta dira, herriz herri egin ziren lan guztiak islatu ahal izateko.

Alde batetik zentzu hertsian militarizatu hartzen ahal ziren eginkizunak zeuden: trintxerak irekitzea, gotorlekuak eraikitzea edota intendentzia kontuetan aritzea.

Bestalde, bortxazko lanak ezinbestekoak izan ziren ekonomia suspertu eta gerraren kalteak berreraikitzeak. Gatibuekin ireki ziren hamaika errepide, burdinbide, meategi eta harrobi, eta gatibu ere izan ziren ubide, urtegi, lantegi eta tailer askotako langileak, batzuetan espetxe barrenean ere.

Hortaz, esklabotza sare handi hau, oraindik bere osotasunean eza gutzen ez duguna, funtsezkoa izan zen gerra eta gerraosteko ekonomia frankistarentzat.



Presoak eta guardia zibilak Sukarriela-Bermeo arteko burdinbideko lanetan
Iturria: Iturbideko Eskola Museoa - Museo Vasco del Ferrocarril

Testigantzak



Las Cortesko presoendekiko emakume presoak, Barzelona
Iturria: Casares Latorre Ziguera, Euzkoaldea Foruaren Barnekoa

Antonia García, la Toñi

Gerrilla zegoenean, gu tailerretan antolatzen ginen ejertizatorako arropa ateratzeko, eta egunero gerrillarentzako arropa ateratzen genuen, arropa asko. (...) Egiten zuten lehenbiziko zatia funtzionarioaren aurrean josten zen eta zenbat denbora eta harria beharko ziren kalkulatu zen. Arropa moztzen zutenak jantzi bat egin beharrean jantzi terdia egiteko moldatu behar ziren. Horrela, bi jantzitako guk bat egiten genuen, eta intendentziarako berrehun jantzi egiten bagenituen, ehun egiten ziren guretzat, eta gero alera behar genituen.

Iturria: T. Cuevas, Testimonios de mujeres en las cárceles franquistas, 2004, Instituto de Estudios Altoaragoneses.



Txomin Uriarte

(BDST 38, Bako, Bizkaia)

Eta gero, ba, horrela ibiltzen ginduzan: fronte bixen erdixen goial imintzen ginduzan. Da guk biharrian "pico y pala" gaz. Ta biadiak eitten hurrengoan abantzelako edo atakia emoteko. Ba gorriek ez doskun tirotuten, esan egiten doskun ganera: "bai, badakigu nortzuk zarien". Eta ez doskun tirotuten.



Presoen lekua
Iturria: Acosta, Gilelmo, Martínez y Del Río, El Canal de las Presas (1940-1942), Iturbideko Ferrokarrilak eta la explotación económica, Oñate, 2004

ESKLABOTZA FRANKISMOAN: ERREPIDEAK ETA FORTIFIKAZIOAK MENDEBALDEKO PIRINIOAN

1. Esklabotza sare zabala

